

Lehendakari jauna, agintari, lagun eta kide guztiok, arrastion.

Laster 40 urte erakunde modura sortu ginala, eta 45, gero Labayru izango zanaren euskera eta kulturaren egitasmoak bidean jarri zirala.

Bide luze horretan emaitza aberatsak jadetsi ditugu: ikasle trebatuak, hizkuntza corpusak, ikas eta irakur liburuak, aldizkariak, biblioteca-artxiboak... eta, batez be, lan metodologia on bat.

### **Un proyecto de personas**

Humanismo sakon baten sinestuta, personak formatzen ditugu. Gazteak, helduak... personak dira gure altxorrik ederrena; lehen, gaur, eta gero.

150 lagunetik gora ibili dira gure artean lanean, 300 laguntzaile ditugu, eta beste 50 iker laguntzaile. Gure eskoletatik 17.000tik gora ikasle igaro dira.

Euskal Herriko Etniker taldeen zuzendaritza eta idazkaritza be Labayrun datzaz; inguruan 120 kide eta ikertzaile dituela.

Gizarteari eskeintzen deusaguzan zerbitzuen bezeruak, 250 enpresa eta erakunde dira.

Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz hitzarmen finkoa daukagu; Bilboko Udalagaz be bai. Hainbat euskal udalegaz izenpetu ditugu zerbitzu-hitzarmenak. Sinesgarriak garan froga agiria.

Euskal gizarteko Erakunde bat gara, euskera eta euskal kulturaren hauspo izan dana eta gerora be izan gurakoa. Gizartearen eta Herri Erakundeen arteko lankidetzan sinesten dogu; hartuemon horretan zubi izan gura dogu.

### **Hemos generado un rico patrimonio**

Txiri-txiri batu dogu geure biblioteca-artxiboetako ondarea, euskal kulturaren ardatzean: euskal liburutegiak 67.000 aletik gora ditu, eskuizkribu eta agiri zahar mordoa, 100.000 argazki baino gehiago, milaka kartel...

Labayruren argitalpenak 400dik gora dira: ikas liburuak, sorkuntzazkoak, klasiko zahar eta modernoak, etnografia eta historia monografiak, ikerkuntza-lanak aldizkarietan...

Labayru Hiztegiak 90.000 sarreratik gora ditu, gelditu barik barritzen; bizkaiera idatziaren jarraibideak, 2.500 ikusentzunezko herri-jakintzazkoak.

### **Dentro de cuatro años nos gustaría celebrar los siguientes logros**

Helmuga honeetara heldu izana zelebratu nahi genduke:

Ikerketa egitasmo barriak bideratu, gizarteak eta herri-erakundeek garrantzizko eta erreferentziazko epaituko dituenak.

Gure dokumentazio zentroa ikusgarriago eta erabilgarriago bihurtu izana. Jenteak gugana jotea, kultura balioko ondarea, gure esku dagoana, ondo jagon, zehatz sailkatu, eta erraz eta argi ipini gizartearen zerbitzutan: liburutegia, argazki artxiboa, gure argitalpenak. Daukagun ondarea, berba baten.

Gizartetik datozen sarrerak hirukoiztu egin nahi ditugu, beregaintasun handiagoa erraztuko deuskuenak.

Eta Bilbon egoitza bakarrean batu gure jentea eta langintza.

### **Nuestros valores son sólidos**

Zehaztasunez lan egiten dogu. Kalidadea zainduz. Bezeruen konfidantza irabazita. Hurreko sentitzen gaitu gizarteak.

### **Hemos iniciado una nueva andadura**

Gogoeta estrategikoaren bidez zeregin jakinak ipini deutsaguz geure buruari, eta urratsak emoten hasiak gara.

### **Renovamos nuestra imagen**

Horretarako,

Izena egokitu dogu. Labayru Ikastegia Labayru Fundazioa bihurtu dogu.

Irudia barriztau dogu; aurrekoaren errastua galdu barik, antz barria emon.

Sare bidez hurreratzen diranek web orri barria topauko dabe orain. Labayru zer dan, zer egiten dogun errazago erakusteko eran: labayru.eus.

Gizarte osora gehiago zabaltzeko be pausoginen gabiliz, batez be hedabideetan.

### **Potenciar nuestra presencia en el mercado y en la sociedad**

Euskera eta euskal kulturaren hobariak saltzen ez dago erraz, gaurko joan-etorri aldakorrean.

Baina irudimenaren erroteari eragin, eta geure produktu kartera barriztetan gabiliz; eskeintza berezi erakargarria opetsi; eragingarriago bihurtu.

Labayruren sorrera garaiak ez datoz bat gaurkoekin. Orduan ia ezer ez egoan, ez materialik euskaldun helduei euskera irakasteko, ez irakurgai egokirik, ez ikas programarik, ez hizkuntza zerbitzurik.

Bestelako egoeran gagoz oin. Gazte eta adinekoak euskeran eskolatuta dagoz, nahiz berbeta makalagoa euki askok.

Labayruk, bildu dauen hizkuntza bizi naturalaren ondareaz mendatu nahi ditu gazte euskaldunak. Era barriak asmau, erabiltzaile gazteen euskera bizkortzeko.

Labayruk derriorra dau, erakunde, alkarte eta jentegaz alkarlanean jokatzea: kantari edo musikariak, irakaskuntza sareak eta beste.

Alkarlan bidea gehiago landu nahi dogu, erakunde eta enpresentzat erakargarriak izango diran egitasmoak sortzen. Bakotzak geure nortasuna jagonda, batez be norberen bereizgarritzat daukaguzan arloetan.

Gizarte-sare zabala daukagu inguruan: laguntzaile babesleak, lagunak, ikasleak edo izandakoak, kolaboratzaileak...; sare zabal kualifikatua, nor bere esperientziagaz laguntzeko prest. Sare horren indarra bideratu eta onura bihurtu nahi dogu. Horretara, Fundazioak gizartean daukan presentzia areagotu.

Barrura begira be baditugu lanak. Bat, beharginen prestakuntza jarraikoa. Krisiaren ondorenez baztertutxe geunkan alderdia. Barruko jentearen prestakuntza betirik izan da Labayruren bokazinoa.

Kudeaketa eraginkorrago eta arinagoa bihurtu behar dogu, eta barru antolaketa malguagoa, aldian aldiango preminei hobeto erantzungo deutsena.

Honegaz lotuta, beste lehentasun bat.

Hiru egoitzatan hirukotxa dan erakundea, Bilbon egoitza bakarrean lekutzea, LABAIRU, LABAIBAT bihurtzea, horrek gure jardunbidea bizkortuko dauelakoan, eta ikusgarritasunean irabazi. Ekinean gabiliz helburu horri buruz, eta itxaropena badogu, hirutasunetik batasunera helduko garala. Ekina erraminta gogorra da.

### **La presentación de hoy**

Gaurko ekitaldia kanpora begira atondu dogu, gizartearen aurrean agertzeko gure izatea eta asmoak.

Gizartearen parte gara, berari zor deutsagu garana. Gure jenteak eskubidea dauka jakiteko zertan gabiltzan.

Etorkizunari ez deutsagu bildurrik; gogotsu gagoz. Bidea finkatuta daukagu; bidean jarri gara. Gaur, zuekaz danokaz bat egin gura dogu.

Bat egin, erreferentziatzko erakundetzat autortu gaituen herri erakundeekin, berariaz Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, Bilboko Udala, eta BBK Fundazioa.

Bat egin gure zerbitzu-hartzaileekin; gugan uste osoa ipini dabenekin. Eurok bermatzen dabelako gure egonkortasuna.

Bat egin, gure laguntzaile eta lagunekin; lan eta egitasmoetan bitartekari, sustatzaile eta laguntzaile ditugunekin.

Eta beste enpresa eta erakunde batzuekin, egitasmoak alkarregaz bideratzeko bideak edegi nahi ditugulako, hitzarmen eta akordu bidez.

Eta, hoba ez, hedabideekin, eurok ditugulako gizartearen eta gure arteko zubi zabala, sortzen ditugun kultura-erlazioak plazaratzeko bidelagun.

Ondoren bideotxo batek lagunduko deusku gure lehena eta geroa buztartzen; orain artekoa gogorarazo, etorkizuneko argia emon eta gogoia barriak hartzeko.

Halan bazan, ez bazan, sar bedi kalabazan eta urten bei Bilboko plazan.